Maider Nabarro Gonzalez
Bertan Infernea 4-5 B
Burlata
San Fermin Ikastola

# - ETXARRIKO PAZKUEK-

(Etxarriko Forturi eginiko elkarrizketa)

Fortunato Etxeberria

65 urte

Etxarri-Aranatzeko Euskalkia

Laida:Eh... nola akordatzen dituzu zure gaztaroko Pazkuek o Gabonak?

Fortu:Baa...

L-Nola izaten zien?

F-Jo...ez dakit atia bier...

Koño!baa,atiatzen giñen kuadrille, ta lena eitten giñuben afaldu emen, etxien, bakutzek afaldu, ta gio... afalduta faten giñen eh...

Mezaa gaubeko hamabiten oola ioten zan, ta gio andi atia ta , beti, geienien ioten zan ba, elurre.Elurre beie asko, iguel metro erdi bet o geio,gutxi gutxina mintzet metro erdi bet. Ta ia ioten giñen tenplatuik ta gio ba eitten giñuben neskatuekin juntetzen giñen, eh kuadrille neskatuena ta mutikuena. Ta faten giñen ba etxiatia, neskatuen etxia, xorgiñ afaie eittia.

L-Ta nolakoa zan ba Xorgiñ afaia?

F-Xorgiñ afaie ba,o txuletan bat o iamaten giñuben, ta turrune, eta gio ba iateko ba moskatela.Gio, gau guzien ioten giñen ba juergan, aiketa urrengo goizieño,ba etxia fan be.

L-Ze ordutaño?

F-Ba urrengo goiziaño, eta argittuartien. Ta jartzen giñen ia tenplien daa...ta gio baa guatzia eguerdieño beix.

L-Ta afariie zertan konsistitzen zan, turroia ta ze gehio?

F-Baa maiormente orduben eh salda pixkan bat eta txuletan bat, gio turrune, ta gio...(zer da ori?)...konpota!

L-Ta Olentzero ezautzen zenuten oh?

F-Ez. Ez. Olentzeroik ez zon ez.

L-Ze ezutzen zenuten ba erregie, oh?

F-Be...orduben, orduben ia erregetaño? erregiek allatzen zienien bei.

L-Ta ze opariiek uzten zittuzten erregiek? Nolakuek zien opariiek?

F-Be...afaiek eh,guaikuek beño txarroo eh?...

L-Ta nolakuek?

F-Korrientioo.Ba zopan bat, o...

L-Bei, baño opariiek, opariiek?

F-Ah! kopak?

L-Opariiek, erregaluek.

F-Erregaloik ez zon orduben.

L-Ez? Batez?

F-Ezan ioten erregaloik. Ez.

Gio Pazko egunien atzia jaten zan bastante poleki, ta ia aiketa Urteberri eguniaño. Gio, atzia, Urteberri egunien baa atiatzen giñen kantatzia, "Urteberri"; kuadrillek eh?,bakutzek bee kuadrilla.Hasten giñen ikesten,o obenien eh ensaietzen etxia tia faten giñen, ta iamaten giñuben an afaitteko, etxia artaa, ba zakakanak eh urdeiazpikue, bestiatzuk arrontzak, bestiatzuk eh txistoorra, txorizue, taan eitten giñuben zartaien, orii fuentekadat, ta gio ure jan da atiatzen giñen kantatzia. Ta ur tiaten eh ekargiñuben orii, akordiona ta tronpeta, atiatzeko, beie zon elurre asko, ikiagarri elurre.Orduben musikuek ez zebien nei atiatzia jotzia, ba eitten zen otza... ta otza iotien ta musikuek nei ez, pertza aundi betien ein giñuben sube, ta gio ure artu giñuben, eh, egur luziatien bi launek, bi launek bizkerrien, ta orduben atiaa zien, ta aiketa argittuartien baa fuego! kantas.

Gio biltzen giñuben dirubakin eitten giñuben, eh, bazkaie eitten giñuben.

L-Ta esan digute baa Oillo Meza faten ziñatela, ez? Oillo mezaa?

F-Bei.

L-Eta nolakoa zen?

F-Neizenak bei eta neizenak ez. Maiormente gaztiek gutxi faten zien.Egun orrekin... bat o beste bei beiee.

L-Ta nolako, ze eitten zenuten baa?

F-Baa, guk eeh eibilli, eh...tabenaa o, atiatzen giñen...

L-Ta gero eh, ba badakigu danok ba lehengo neguak ziala baa...oraingoak baino gogorragoak, ez? Elur gehio ta hola?

F-Bei,bei.

L-Ta elur asko eitten zun lehen?

F-Bei, asko orduben.

Orduben zeille zan Belenak ta Urteberriiek aillatu ta elurrik ez iotia.

L-Eta nola faten ziñeten ba leku batetik bestiaa?

F-Ba! Ongi! ongi ibiltzen daa...Ademas eeh, zabaltzen zebien eh sendak.

L-Ta oinez faten ziñeten?

F-Bei, oñez, aixe...Ta elurrien ba jolasien da, ola!

L-Eta kontatuko al diguzu ba, Urtezahar eta Urteberrian ze eitten zenuten? Nola pasatzen zenuten egunak eta?

F-Nola, pasatu?

L-Ze eitten zenuten baa?

F-Bei...Pasatu baa, atiatzen giñen ta gio obenien atxaldien bazkalduta sartu ta kafenbat eta kopanbat, ta kartakan.

L-Ta abesten zenuten?

F-Kebaa! geio ezez.

L-Ta kantatu eitten zenuten?

F-Aa...bei, kantatu bei.

L-Bei?

F-Bei.

L-Ta, bakizu abestin bat?

F-Ez, ez. Guai aaztu...Beia kantatu orduben eh,jeiten da mezatik atia ta kaantatu eitten zan. Eguerdiien,eh...

L-Asko orduben eitten zan...ez?

F-Bei.Kuadrillek, bakutzek bee kuadrillek...

L-Eta eh, gui, nei kontatu didate eh, egun batien ein ziñela erregez jantzi...

F-Ah, bei...

L-Ta nola da hori? ze in zenun?

F-Baa, iondu giñen gau guzie juergan,jo, orduben geunden kasii herriko mutille guziek. Ta bazien eh, ze ordu izan zan... eh irurek o ola. Ta geunden jarrita denok plazan, zon, egueldi

ona zon orduben. Bei, idergi bet bazon... Daa pensatu giñuben , pensatu nen nik:-Ze...guai zaldi betzuk balee, atiako giñuzkek ba erreges mutikuei eengeñetzeko o ola?.

Karo, biorrik ez zon taa... batek esan zen:-Nik bazikohet astuat!

Ta ,bestiek eeh:-Nike billetuko iet bestiat.

Ta gio nik:-Bueno ba nike billetuko iet ba bestiat.Ta fan giñen irurok astuek eske, goizeko iruten, eetxeta, besten etxeta eh?. Ta eman zugun astuek, ta mutiko guziek an espia... Ikus zebienen asto denak, denak iesi! Ta gelditu giñen bost laun, bost o sei laun. Da, gio ba karo, nei giñuben arropa zerbeitt jartzie tapatzeko, beie ez giñuben billetzen. Ta fan giñen laun beten etxia, ta itzo giñen "Casas Baratas" o, orrutza. Itzo giñen da, astue lotu giñuben aataien, ta batek ikutu zon eeh asto geñen, ta eman zon bi ankakin ostikuat eta bota zon arri monton batia, ta autzi zon, sentidoipe autzi zon, ta uste giñuben illik zoola ure, ezan muuitzen...ta esaten giñuben bestiok:-baa! akabo... jodittuek gu juerga! Ta andik rratuatia asi zan muitzen. Ta bueno pixkat ibildu giñuben, ta jarri zan ongi.Beie zazkan,gio fan zan meikubengana ta iru kostilla autsik,zazkan...Joxe Mª. Zengati giñen, Joxe Mª(Galbarnekue), Joxe Manuel,Artxiiana, ta ni.Ta gio fan giñen plaza, ta plazan geundela eh, atia zan barreko Kisostomon Elbire.Ta sartu zugum, barria, ta eman zugun kafesniana taa menjeriana.Ta menjeriakin tapatu, ta eman giñuben herrii guziei buelta. Ta mutiko guziek baa, leiotik ta beeire. Ta gio fan giñen Arbizue. Emen buelta eman giñubenien Arbizue fan giñen, astotan, ta an, iguel; an de fan giñenien eh, jende guzie ataire, ikustia. Nola bei, guañiken erregeik ez zan agertu emen...ta uste zebien ba egisko, aurrek, egisko erregiek ziela. Ta, neiko juerga eiñ giñubenien baa etor giñen etxiaa. Ta etxia eldu giñela...orii bazian ordubiiek o eguerdiien, ta emen e kruzien guaño jende guzia espiaa gui, nola, noiz etorko giñen? Gustetu eiñ zakiiobien eh, erriiai gustetu eiñ zakiion ura. Guk eiñ giñuben eh, juerga eiitteko, daa gustetu eiñ zakiiobien, Arbizun da emen.

L-Bi lekuben ein zenuten?

F-Beei. Ta nei giñuben dee fatie Lizerrengua, beie Lizerren go...ia biandu zan autza fateko.Eta,...orii...Arbizun bazkaittia ta guzie nei zugun ematie. Ta, tabernetan sartu ta... astuekin tabernaa!

L-Barrua?

F-Bei, barrua.

L-Bale ba...ESKERRIK ASKO.

---

-Etxarri-Aranazko URTEBERRI kantako lehenengo bi bertsoak-

UR GOIENA UR BARRENA
URTEBERRI EGUN ONA,
URTEBERRI EGUN ONA
BAITA GUK ERE UMORE ONA

ETXE HONETAN SAR DAIELA
PAKEAREKIN OSASUNA
ONAREKIN ONDASUNA
URTEBERRI EGUN ONA...